

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
43n. ZENBAKIA
ORRILLA
- 1981 -**



**LAMENE'TARRAK 75 URTE BERMEO'N
JOSE DEUNAREN IKASTETXE BARRIA**

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

JABEDUN IKASTETXEAK

ARAZOA

Irakaskintzak indar aundia dauka gizartea bideratzean eta orregaitik gizarteko talde guztiak edo geienak euren eskuetan euki nai dabe, dana ezin ba'da zati bat.

Or egin dau bere lana Eleizeak, or laterri ardatzeratuak, or egin gura dabe alderdi politikuak, eta ez gitxien euren burua guzarte-zale edo sozialista agertzen dabenak.

Eta arazoa ez da txantxetakoa: Ikastegiak zelakoak diran, etorteko dagoan guzartea alakoa izango da.

* * *

GIZARTERATZEA

Aspaldion pizka bat atzera egin arren, guzarteratzeak bere indarra ba-dakarrela argi dago: Lantegirik indarta-suenak, erri-laguntzarako bideak, osagilleen arazoa, diru-etxeak... gizarteratzea aspaldion aitatzen da.

Eta ez legoke txarto gizarteratze ori, ondasunak obeto banatzeko eta erritar bakoitxaren nortasuna zaintzeko izan ezkeru. Baiña ortxe dago arriskua: Zelan alkartu bakoitxaren nortasuna eta guztien alkartasuna? Zelan bideratu ondasunak moltzo batera betzea ta egokiro erritarren artean banatzea? Zelan demokrazia ta gizarteratzea?

* * *

LENENGO ZER

Baiña gizarteratzea onartzekotan, nondik asi bearke genduke?

Garrantzirik gitxien dauken ondasunetatik, zalantza barik.

Baiña lenengo gizarteratze ori egiteko aitatzen dana irakaskintza da eta or sortu dira oraingoz alegiñik aundienak.

* * *

IKASTETXEAK ETA GURASOAK

Ikastetxeetan gurasoen eskubideak zaindu bear dira lenen.

Aspaldion arlo onetan lan aundia egiten da: Len gurasoen ardurea, umeak eskoletara bialtzea izaten zan, baiña orain etxera ainbeste barri bialtzen jakez eta batzarretara dei egin be bai.

Laterri-Eskoletan ez ainbeste bear ba'da, baiña jabedun eskoletan, ikastetxeetan eta ikastoletan garrantzi aundia artu dau gurasoen alkarteak. Ori da benetako irakaskintza erritarra lortzeko bidea.

Ikastetxeak erriaren laguntzarako izan bear dabe, ez laterri ta alderdi politikuen laguntzarako. Orregaitik, bearbearrekoa da gurasoen eskubide oneik ugaritzea.

* * *

DIRU-LAGUNTZA

Bide onetatik sartzerik nai ez dabenai, olako zerbait entzuten dautsegu: Zelan lagundu daikie jabedun eskolai laterriak, bereai bear dan bestean ezin ordaindu dautsen aldi berean?

Arazoa oker ezarrita dago or. Gurasoai laguntzea izan daiteke biderik egokiena, eta gurasoak aukeratu edo egin dagiela euren ustez egokiena dan ikastetxea.

Edo laterriko naiz jabedun ikastetxeai laguntza bardiña emon, eziketa-arloan egiten daben lana be bardiña danta.

* * *

BALDINTZAK

Laguntza ori emoteko, jakiña, jabedun eta laterri-eskolak baldintza bardiñak bete bearke leukeez, erriak berak demokraziz eta zeatz ezarriko leukezan baldintzak. Onein artean, irakatsi bear diran eta irakatsi leikezan gaiak, orduak, egunak, irakasleak, gurasoen zeregiñak, diru-laguntza... ta beste gai asko zeaztu bearke litzakez.

* * *

ERRIRA BEGIRA

Oiñarriko gauza lez auxe ezarri bearke genduke: Ikastolak, ikastetxeak naiz eskolak, gurasoak eta sendiak osozten daben errira begira ezarri bear dirala eta gurasoen eskuetan jarri.

Gure errian, Laterriaren ardurapean izan dan irakaskintza erriaren aurkako jokabidean izan da beti, baiña aldi orreik amaitutzat emon bearke doguz eta aldi barri oneitan oiñarri egokiak jarri: Euskaldunen erria, sendietan oiñarritu da beti eta ortik gora jo dau. Zori onez edo txarrez, ez dogu iñoz agintaritzak bakarrik izan, ez laterri sendorik, baiña sendia bai sendo.

Bide orretatik bear ba'da, euskerea be gaizkatu al izango dogu oraindiño, baiña etorkizuna ez da argi ikusten: Norantza joko ete dau gure irakaskintzak?

EBANJELIOAK

Goiria

Ebanjelioak Jesus'en bizitza ta irakatsiak jakiteko iturri dira.

Izan daikegu usteonik Ebajelioetan? Bai.

Zelan egiztu lau ebanjelioak lau ebanjelariak idatziak dirala? Apostoluen egunetatik aldi gitxira bizi ziranen agerkaien-bidez.

Papias, Ireneo ta beste askoren agerkaiak ekarri daikeguz au egiztutzeko. Eliza orokarra.

Juan ebanjelaria ilda laster—, au da, Jesus ilda 150 urtera, Elizak gogotsu agertu eban lau ebanjelioak egizkoak zirala. Ez zirala asmatuak edo aldatuak.

Igarotako aldia aldi laburra izan zan ebanjelioak aldatzeko.

* * *

Itzulpen batzuk daukaguz bigarren gizaldian. Ireneok eta Inazio doneak be ba-dakarrez lau ebanjelioetatik artutako esaera batzuk. Eun bat. Papiroetan idatzitakoa gaur be ba-daikagu.

Zahn protestanteak diñoanez ainbat gizalditako goraberak ez dabez ondatu ta galduerazi egiazko ebanjelioak. Gaur Elizak gordetzen dituan ez idatziak izan zirala aitortu bear dogu.

* * *

Antxiñako idazlanetatik egizkoenak ebanjelioak dirala desakegu.

Nork diñosku Ebajelioak diñoena jazo zala? Ebajelioak edestuten dabezan jazoerak egizkoak dirala?

Ebangelioak idatzi ebezenak eurak dira agerkairik onena.

Iturririk onenak eukezan ortarako. Euren begiak eta belarriak. Eurek ikusi ta entzun eben ebanjelioan diñoena.

Egia esateko gogo ta naimen osoa eukén. Ez eukén iñor atzipetutzeko asmorik ez gogorik.

Erljio barriaren arerioak ebanjelariak esango ebena guzurtzeko egingo eben alegiñak be agerkai sendoa dirudi. Ebanjelioak gure sinistearen oiñarri sakona dira.

EBANJELIOEN EGIA

Ebanjelioak idatzi ziranean edestuten dabena ikusi edo entzun ebenak bizi ziran.

Juan apostoluak diño: «Gure eskuak ikutu ebena iragartzen dautzuegu».

Juanek ondo be ondo ezagutu eban Jesus. Beragaz bizi izan zan iru urtetan. Adiskidetasun estu-beroa izan eban Beragaz. Bere egite ta mirari arrigarriak ikusi ebazan. Bere aotik entzun ebazan Jesus'en irakatsiak. Bere Nakaldia ta Eriotza be ikusi ebazan. Bardin bere Biztuera ta zerura igotea.

EBANJELIOEN ITURBURUAK

Asieratik ba-zan Biziaren Itzaz entzun doguna, geure begiz ikusi, oarrez begira ta geure eskuz aztatu doguna dakargu.

Izan be Bizia azaldu da ta ikusi dogu. Ta Aitarengan izanda azaldu jakun betiko Bizi onen aitortzale ta aldarrikari gatozkizue. (Yon, 1-2).

Ta Itza aragi egin zan eta gurekin bizilagun izan eta Aren aintza ikusi dogu. (Yon, 1-14).

Ez gara asi geure buruak aldarrikatzen. Jesukristo Yauntzat iragartzen bai Jesusengandik geu zuen morrointza azaltzen. (2, Korintiokoei).

BESTE AGERKAI BATZUK

Ebanjelioak ez-da, zeintzuk idaztik euki ete leikie nau-sitasuna? Zelan eta noz esan daikegu idazti bat urliak idatzia dala ebanjelioak apostoluak idatzitakoak dirala sinisten ez ba'dogu? (Agustin doneak).

Gaurko sinisgabeak begiak itxi dagiez ebanjelioak ixurritzen dauan argia ez ikusteko. (Ballester Nieto).

Ebanjelioa liburutegi guztiak baiño aberatsagoa da. (Gibier).

Emeretzi gizaldiotan gizonen idazti guztiak lau idazti-txu onein buruz mintzatzen dira. Beste idatzi guztiak Ebanjelioaren eta Kristoren alde edo aurka dabiltz. (Papi-ni).

Irakurteko zaletasun aundia izan dot beti ta beste edozein idazti baiño sakonago sartu jataz Ebanjelioaren itzak. (Avilako Terese doneak).

Egizkoatzat daukodaz nik ebanjelioak. Kristoren kerizpe-aunditasuna daurkit eurretan. Burua makurtzen dot euren aurrean Jainkoaren aurrean bai'litzake bezala. (Goethe).

ARETXA, EUZKO ZUGATZA?

(II)

Lenengo idazlantxuan esaten genduan zelan «Guzur-aretxa» egondako lurraldean, eta osperik aundienaz, Gernika'ko zugaitzaren seme barri bat landatu zan erriko Udalaren babesbian, orretarako lenen erri-lur ori Udalak beragandu ondoren.

Gernika'ko Zugaitzaren ume ori ederra egin zan berrogeita urte ortan, ainbat Galdakano'tar zintzoren begirune onez, baiña, orain bost urte, ia sei, Andra Mari txadon zarraren inguruan egin eban zelaia egiteko atxakiz eratsi eben urduko «alkate» zan Legorburu'ren aginduz, nai-ta bera euzko odelekua izan gorrotoz ikusiten ebalako euzko oiturazko arlo guztia.

Eginkizun samiña zugaitz orren esan-naia, edestia ezagutzen genduan Galdakanotarrantzat, baiña, aldi artan ezin genduan ezer esan, barriz «alkate» orren aginduz espetxeratuak izan nai ez-ba'gendun.

Zitalkeri guzti orren gaiñetik be, ba-dogu Galdakano'tarrok zugaitz eder mardul bat, Gernika'ko aretx donearen seme eder bat, eskerrak orain urte gitxira arte Gal-

dakano'tar gitxi batzuk baiño ez dogulako jakin non eta zelan aurkitzen zan, ostaintzean oraingo, ziurki, euzko arerio zatarren batek ebagia izango zan. Ara zelan:

Len aipatu dogun Guzur-aretxa egondako lurrean Gernika'ko aretxa'ren semea landatu zanean, 1936'garreneko Epallaren erdi edo goragoan, gure Udala bildur zan landara orrek lurra ez-artuko ete-eban eta, landara ori igartuten ba'zan beren ordezkioak eukiteko, beragaz batera beste landera bi ekarri zituan eta, orduan Bizkai'ko Aldundia'ren mintegitxu zan Lur-gorri edo Iturria izenaz ezagutzen dan inguruan landatu genduan gudaketako lerkaien batek triskatu eban. Zorionez irugarrena mardula ta ederra dago gaur-egun, larrentxu ortan, edozeiñek ikusi leikenez, bada Urgoiti (txar-to esanda El Gallo) baiño pizkat aurreratxuago Gangure'erako bitxabala artuta Padrola'ko base-txeetara eldu baiño len, ezker aldera.

Azken-aldian Bizkai'ko Aldunen abotik jakin dogun lez, orain daukagun Gernika'ko zu-

gaitzkumearen inguruak, eta bera, apainduak izango dira eta larren ortan atzeded-baratz zabaltxu bat sortu. Eta lur-alde ortan iturri bikain bi diran esketiño, eguzki-begita ipar-aixetik ondo ezalduta, leku egoki bat izango da asti-aldi batzuk bertan norberaren sendiaz igaroteko. Egitamu ori aurrera eroateko, bat ei dagoz gure erri-Udala ta Aldundegia.

Ez dago esan bearrik, asmo orreik egiztuta ikusitea benetan pozgarri izango litzakela Galdakano'tarrentzat eta, baita bertarutuko litzakezan guztientzat be, bada, ez da erreza noznai Gernika'ko zugaitzkumearen gereizpetan aurkitzea, areitz orreri begirunez begizatuten dan bitartean.

Asieran esan dogunez, ez daki-gu aretxa euzko zugaitza dan ala ez, baiña, begirunerik, itzalik geien euzkotarrok dautsoguna bai, geure batzar-tokirik garrantzitsuenetan beti izan dalako. Jarraitu daigun aurrerantzean be bera landu ta jagoten.

ALTUNA'tar Josu

AURRERA

Aspaldian, bai etxe barruan, bai enparantza ta kaleetan, bai, ta izparringi, irrati ta alde guztietan, negar-otsa baiño besterik ez da entzuten: dana doa txarto, emen ez dago zer egiñik. Askok diño: len obeto gengozan, zelan ete gure etorkizuna?

* * *

Au da gure erriarentzak galgaririk aundiena: Itxaropenik eza, itxaropena galtzea.

Gauzak txarto egon arren, oraindiño ez dago eurak konpondu eziñik.

Euskalerriak, kondairan zear, une txarrago ta larriagoak izan ditu, bai orixe, baiña danak gaindu ditu, beti garaille urten dau.

Begira orain gaztedi ederraren indarrari, ume guztien poztasunari, gure fededunen itxaropen bular-tsuari ta euskaldun geienen jatorrizko langilletasunari ta guzti orreikaz ez dago bildurrik. Guztiok alkaturik, ez dago eziñik.

Lentxuago edo gerotxuago aro txar onetatik urtengo dogula? Bai, ez dago eziñik. Ezpai barik bizi.

* * *

Danok negarti biurtzen ba'gara, binbili, bonbolo, geroago ta beerrago jausiko gara.

Ezekortasuna erantsikor, ezarrikor eta kutsukorra da. Ezekortarren negar ta aienak beti entzutean inguruko danak ezezkor biurtzen dira.

Bardin jazoten da baiezkortasunagaz. Gizon baiezkorak ingurukoak baiezkor biurtuten ditu.

* * *

Gure erriaren une gogor oñtan, edestiari, eliza-jakitun, idazlari etb.etab, baiezkor biur bear gara, erri samindu guztioen biotzetan itxaropen argia ixiotzeko.

Gaurko gure erriaren gaixotasunik aundiena, ezezkortasuna dogu eta orregaitik, asperturik erria, ardurabakotuten asi jaku.

* * *

Gogoratu ekaitzaren ondoren beti baretasuna elduten dala.

Orretarako arrankariaren antzera jokatu bear dogu. Amorraña, bere arrautzatxuak erreka buruan ipiñi nairik, murgiltzen da goitik beeruntz datorren ur aundi indartsuan, eta, aspertu baga goruntz eta goruntz diardu, nekez ta lanez, eta eten bagako bultzakadakaz, eltzen da azkenez, erreka burura eta an bake bakean ipinten ditu bere arrautzatxuak.

* * *

Amorrañak bere lana egiten dau bere barruan jatorrizko indar bat somatuten daualako.

Guk be geure barruan, sakon-sakon indar bat sartu bear, dogu. Indar ori itxaropena da.

Ba-dakigu bakoitzat indar bat dogula, gure indarra banandu beerran bestearenagaz alkartu bear dogu.

Ez ibili norberaren eritxien bila, baiña bai guztientzat ona dana billatu, indar guztiak alkartu eta, Jauna be geugaz dogula ez dago eziñik.

* * *

Il ta erre ta triskatuaz, ez dogu Euskalerra ganorazkorik egingo, alkar besarkatu ta gure didar bakarra auxe izan daitela: Bai alkar-tasunari, bai itxaropenari, bai maitasunari, bai gure erriari bai, bai ta beti bai.

Orain dogu erea euskalerra eder bat egiteko. Gora biotzak. Argi begiak. Irrintzi mendi ta arroetan: geurea da garaipena, geurea lana, geurea erri dana.

Goazen lan-bakotasun, txirotasun ta griña txar guztien erreka aundi galgarriaren barrutik bultzta egiñez udabarri ederrera.

ZAR - GAZTE'K

IBAI - ERREKA

Ez da atzo goizeko ipuiña.

IBAI-ERREKA datorrit gogora, beste aren antzeko orduko ezizenez ezagutzen ziran Txilintxio, Gaurarru, Kirten, Mozkorkume, Asentxio, Oizko eta abar. Entzute aundikoak erri barruan, aldi artako, gure txiki denporako lugintzazko nekazari-gizartean.

Gizon arrunt, bakanak, beti agomiñean zebiltzanak euren nabarmen edo griñaren bategaitik.

Urteetako igarobidez uleak edurtu diranarren zuri-urdiñez, nire umetako, gaztetako bizi-lorrazteko ikuste eta gomutapenak ez dabe guztiz galdu orduko munduaren gazigetzazko argitasuna.

Bizirik diraute orduko gizartearen esparruko gatz eta piperrez, orduko amets, siniskeri, orduko jazkera, orduko zentzun eta, argitasunez.

Bizirik orduko lanbideak, orduko neke-atsegiñak; bizirik auzoetako biziaren goraberak, orduko laguntza eta asarreak, orduko gizatasun, ganguxkeri eta zelebrekeriak; orduko egunak.

Nekazari bizitza zan nire etxekoa, auzo eta ingurukoa. Urte-aro bakoitzaren araubidez landuriko soloak; arbi, arto, gari eta abar, ederrik agertzen ziran ainbat nekeren emoiak.

Uztatzeak zirala, ereiteak zirala, lugiña beti lanpean, kuku etorrerazko udabarritar egun alaietan edo udazkeneko egunetan elaiak alde egiten dabenean, baserrian eztago geldi egoterik; satsetan, azpi-garritan, egurretan, bedarretan, orri-kimatzen, artogarauntzen, beti, burdiñaraz, goldaz, alperraz, atxurraz, eskuaraz, koraiñaz, laiaz, sardaz eta, abar, beti zerbait.

Txarri bat, olloak eta, lau abelburuzko ezinbizitzeko baserri potrillak. Oztaz urte guztirako artoa, ogia, esnea... Etengabeko lanaren bitartez irabazten zan bizia, kentzen zan gosea. Mizkinkeri barik.

Baserri askotan artzen zan etxerako txakolin edota sagardoa.

Gaztañadiak be, aurrez izaten ziran eta ondo etortzen ziran negurako danboliñean erreta edo ego-sirik...

Baserriko lurrak baratz loretsuak ziruditen, batez be, arto-garitzazko ezetasun orlegiz edo arbi-lorrazko oritasunez.

IBAI-EURREKA ezik, lugintza zan orduen ogibiderik nabariena, baiña ezta aztu bear baserrietako seme askok eta askok, bizitzeko itxasora, Ameriketara edo nunbaitera atara bear izaten zirala etxeak ez ebalako emoten danantzako ainbeste ogirik.

IBAI-ERREKA be, iaioztaz baserritarra, etxaguntza on baten jabea zan baiña alperra eta, ondobizitzeari emona eta laster eralgi ebazan bereak ziran eta ez ziran ogasunak eta, gero, norabait alde egin bear.

Urte mordoska batean etxetik at, itxasoan ibili eizan matxinsaltoen antzera, ontzirik ontzi, gaur emen, biar an, beren iaioztatik ganorabakokeri, eperdi lokaz.

Nunbait itxasoz aspertu zan edo gogaitarazi ebazan ontziburu guztiak eta, egun batez barriro daukagu legorreen.

Ez zan ausartu bere iaiozterrira ioaten. Beraz, zer egin? Nun ogibidetu? Lugintzan ez. Beraz, ain esku utsik etorri ez zanez, beren lauko apurrak eralgi orduko arrantzurako txalupa edo potin txiki bat erosi eban, gañontzeko sare, amu, bear-bearrenezko tresnak.

Urdaibai ibaia aukeratu eban orretarako, Gernika'tik Mundaka alderañoiko itxasadarra.

Eta, an Kortezubi aldeko baserri batean kokatu zan ibai beraren aldamenen... Ostatur.

Begi zuri eta ule gorrikan berrogei urte inguruko planta oneko gizon giartsu, gizon gordiña. Ezer gitxiaz irakiten zan gizon mutilzarra. Erabat ixil eta illuna.

Betoskodun gizon begi zuri, garratz oni, lagun askok bildurra eutson.

Geien bat bakartia zalako, elizatia ez zalako eta ezer gitxiz gora-goratzen zalako.

Baiña, dana-dala, bera, beren bakartadezko iza-keraz an zebillen itxas-agerañoiko urbide basterrak

arakatuz, azkatasun osoan, urgora eta urbera, urbi-zi eta ur illetan, illargi betezko gau argietan edota aize mendebalaren, aize iparraren naiz aize egoaren nabarmenkeri eta gozotasunetan.

Bazekian nundik nora ibilli: errekatan, zingiratan, ondartzatan, ur-artekatan, konportetan.

Bazekian alik ezkutuen nun sareak iarri, bazekien bai, ibaiaren estugune eta zabalerak, bazekien lats eta errekaen barri.

Aldian aldikoz; angulak, angirak, izkirak, karramarruak, txirlak, markolak, lapak, muskulluak, lanpernak eta, al zan guztian arraiñak.

Egualdia zer tankeratan zetorren ikusiz bazekin zein arazo artu edo zein aldera abiatu.

Ortik bizia irabazi bear eban eta etzegon beti lo egiterik.

Antzora, Arketa, Legendika eta abar, ibaiaren eskerreko aldetik edo Mundaka, Busturi, Murueta eskumakotik, itxaso aldetik begipeturik.

Bezerorik onenak Gernika'n zeuzkan eta astele-netan ez eban utsik egiten.

Beren bakartadezko ogibide, zeregin ortan, Bost eiza-txakur zintzoa eta eskopetea ziran beren lagun-rik onenak.

Arata, antzar, egabera, kurlintx egaztiren bat ti-robarutzen bazan txakurra gertu egongo zan ureta-ra iauzi-arren ekartzeko.

Orrela izanik, txakurra (azukera koskor bat edo) ez zan sari barik geldituko.

Biak pozik. Uretako emoitzaz ogibideturiko gizon bakarti eta buruzut onek, asarrebide asko sortzen ebazan inguru-alde artako baserritarren artean iñungo begiramentu barik beren sareak bedar ganetan zabaltzen ebazalako dana zapalduz edo, konporten bat zabalik itxi ebalako, edo euren lurretatik igarotzen zan latseko uretan butroiak ipintzen ebazalako eta abar, beti zioeren bat asarrerako.

Bekaizkeria be ugari.

Baserritarren artean baziran bai ezinbizizko gizon arro, zeken galantak. Baiña ez zan gure gizon au amor emoten ikasitakoa, atzera egiten zekiana. Ez zan errez ikaratzen zana. Eta, orduan izaten ziran txiripiñak: desteñak, iraiñak eta azkenik odolak berobero eginda gertatzen ziran burruka lotsagarriak.

Beiñola, IBAI-ERREKA'k nasai asko zebillanean GAUNARRU'ren lurretako luban gaiñean errekatik butroiak iasotzen, ixil-osteka, onek eskopetazko tiro bat az eratzu eban lurrera zaurituta odolatan itxirik.

Ikusi eban auzokoak iaso eban.

Urrengo egunean txapel okerrak etorri ziran Gaunarru'ren billa eta, lotuta eroan eban Gernika'ra.

Zaurietatik sendatu zanean gure IBAI-ERREKA, an azaldu zan barriro, leunago zan, baiña itzela-go, bere bizibideari iarraituz kementsu, betiko antzera, lats-errekak eta ibaiaren zearkazko itxasoraño-ko zokondo, bazter guztiak arakatuz.

Egunetako bizarras azaltzen zan geienbat, baldarrago be bai, baiña len bezin arro, buruzut, arro, ez elizazko ez andrazko iñungo loturakizunik onartzen ez eban bakarzale errimea.

Beren buruarekiko morrontza eta arduratasun bakarrean, azkatasun gurari utsean bizi izan zan, beren ogibiderako bear ebazan tresnakaz bat egiña, an, gero, urtetsu, bere ostatu-etxeko gelan goiz batean ilda aurkitu eban arte.

Zelako bizitza alako eriotza.

MUNIATEGI-tar Sabin

"EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketeak eratzten dau.

Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan beariko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabili az idatziak.
- Ipuinen itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzera, orri-aldi bi, bitarte bi lerro-arteant dituela.
- Epea: Jorraillaren azkenerako gure lan-etxean (Colón de Larreategui 14, 2.ª eskoia) izan beariko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.ª 25.000 pezeta; 2.ª 20.000 pezeta eta 3.ª 15.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri beariko dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gaiñean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroazan txartela.
- Maikoen erabagia, bagilleko (ekainilleko) ZER'en agertuko da,

1981, epailla.

ONAINDIA'TAR ALBERTO

Zatozkit goi argia,
gizona ikusteko,
bera dan bezela;
ez dot nai bardintzerik
iñungo gizonekin
zerana zarela.

Argietarantz adi,
lurrean sustaiturik,
zугatzik ederrena;
euskal aritz zara,
giartsu eta lerdan,
tantai oberena.

Euskaldun baratzean
millaka lili dagoz
arrosari adi;
Marileko zelaian
lorarik bikaiñenak
gizona dirudi.

Malaxko arkaitzpean
arria eta ura
dizdizetan dagoz;

gizonen egarria
egiaren uragaz
ase nairik zagoz.

Egille almentsua
errukitsua izan zan
beren argiagaz;
miñean jarri eutzun
zurtasunaren doia
erretzasunagaz.

Zenbat biotz negarti
ainbeste gizonetan
zendukeyan adi:
zuk izan bear zendun
zuzentasun abotsa,
euskaldun leiñargi.

Kristo ikusi nai dot
zukan ta pobrietan
negarrak txukatzen;
esker-miñetan dozuz
zure itz entzuleak,
OLASO goratzen.

Paris'ko urretxindor...
Milloik gizonen izar...
Zapalduen poza...
Egin zendun on dana
koroï bat bezela da,
egiaren otsa.

Ona eta egia
gizonaren itzetan
bat biurtzen dira;
au da pozaren garra
bizia urraturik,
gizonei begira.



GALINDEZ

*Agur, Jesus Galindez,
odol oiartzunetan
arrituta nago;
nik ez nekien zer zen,
zure gizontasuna
baiño ederrago...!*

*Ezagunak ez giñan...
Izen ederra zeunkan
dardaraz betia;
on ala argi ziñan...
ala serbitzaria...
adorez jantzia...!*

*Berez ta doai landuz
dardaratsua ziñan*

*gizonen ourrian;
gaztetsu ziñalarik,
zenbat gauz ederretan
jo zendun bizian...*

*Bildots errugabea
zan zure irudia
ontasun garbian;
gorrotozko zirkinik
ez zendun onartu
gizontasunian.*

*Euskaldun edestia,
gizon min ta pozak
ta jakituria,
emen, maite zenduzen*

*jatorriz zirelako
asaba arimia.*

*Askatasun zorion,
odol ta itzez nai zendun;
zer ederragorik...!
minkor zeunkan biotza
odol errugabea
kateiez loturik.*

*Abertzaletasunez,
sua bezela ziñan,
maitasun garbia;
jakituriz bakana,
aberriaren gizon
gailen irudia.*

*Nun artu zendun gatza,
biziaren urratza
odolez zaintzeko...?
Gizon eskubideak
martiri il zinduezan,
erriak zaintzeko*

*Galindez aintzatsua,
erria jaso dozu
semien pozetan;
zure gar indartsua
suagaz zabaldu da
Euskalerrietan.*

PAULIN

JOSE DEUNA IKASTETXE EDERRA

(Bermeo'n)

LAMENE'TARRAK

Irakaskintzara euren bizitzea eskiñita dauken lekai-deen artean, ezagunak doguz Lamene'tarrak. Bizkaia'n iru Ikastetxe ospetsu daukez, Portugalete'ko Andra Maria'rena, Begoña-ondeko Berrio-Otxoa'rena ta Bermeo'ko Jose Deunarena.

Frantzia'ko Bretaña da lekaide onein sorlekua. An Ikastetxe aundi ta ederrak daukez, eta Plouarmel Euren Etxe Nagusia.

Andik zabaldu ziran bazter guztietara, gazteen eziketarako oso-osoan euren buruak eskiñita.

Aurten beteten dira 75 urte Bermeo'ra eldu zirala. Ori dala-ta, jai ederra ospatu dabe Jose Deunaren Ikastetxe barrian.

* * *

GIZANDIEN ALDIA

Lenengo urteak ez ziran errezak izan erri onetan Lamene'tarrentzat. Erria laguntzeko gertu egoan, baiña aldi areek berez be gaurkoak baiño latzagoak eta gogoragoak ziran.

Lenengotan gaur Arana'tar Sabin'en izena daroan plazan artu eben bizilekua eta antxe bizi izan ziran, apal eta lantsu, aldi barriak sortu arte.



Baiña laster agertu zan aldi barrien ezaugarria: Euren lanaren garrantzia ikusi eban gizon batek, Eupeme deunaren eleizeari ta ikastetxea sortzeko etxe bat emon eutson eta antxe sortu zan Jose deunaren Ikastetxe zarra.

Asko izan dira etxe zar aretan euren ikasketak egin dituen Bermeo'tar gizon ospetsuak: Itxas-gizonak, irakasleak, asmatzailleak, abadeak, gotzaiñak be bi bai beintzat (Anasagasti ta Zirarda jaunak)...

An egin ziran erria aurrera aterateko alegin sutsuak, lekaideen aldetik, erritarren aldetik, Eupeme deunaren parrokia bide ebalá eleizearen aldetik...

* * *

LARRI-ALDIA

Baiña irakaskintzak aspaldion aldakuntza aundiak izan ditu eta erria bera be ez da gitxi aldatu. Eta ortik Ikastetxe areri be bere larrialdea etorri jakon: Txikia zan, jolas-tokiak ez ziran egokiak, etxea bera be zarra ta atxakitsua, ikas-gelak be ez egokiak...

Euskerearen arazoa be bizi-bizi sortu zan errian eta ortik Ikastolea sortzeko gogoá agertu zan, eta sortu be bai. Baiña Ikastoleak be ikastetxe barri bat bear eban...

Olako lanak egiteko, osterá, diru-pillo aundiak bear eta milloiak urri aurkitu eta errez eralgi egiten dira.

Ikastetxe egoki bat zabaltzeko, lekaide arduradunak be bear, naizta lekaide ez diranen laguntza egokia be billatu ta aurkitu al izan. Eta Lamene'tarrak beste alde batzutatik be deiak artzen zituen ikastetxea ipinteko edo lengoak beteteko.

Zalantza aundi ba euken ba Lamene'tarrak Bermeo'n: Artu ala itzi?

* * *

LAGUNTZAK

Lenengoa diru-laguntza zan. Ori barik ez egoan aurrera jarraitzerik. Ikastoleagaz batera Ikastola-Ikastetxe izango zan etxe eder bat egiteko amesa be gogoratu zan. Eztabaidatu be bai. Baiña zori txarreko alkar ulertu ezaiñak sortu ziran eta bakoitxa bere aldetik jokatzeko bidea artu eben. Onuragarri bear ba'da. Gaur Bermeo'ko Irakaskintza nasai ta egokiro dago.

Zalantza ta alkar-izketa luzeak izan ondoren, Antonio Añoveros gotzaiñak be Eupeme deunaren Zin-Eleizearen bidez laguntza egokia ta aundia emon eutsen, Ikastetxe zarra ta zerbait geiago saldu ondoren. Eta ori oiñarri zala, Laterriaren laguntza be lortu eben eta orrellan aurrera jarraitzeko arnasa barria izan zan.

Etxe-lana asi eta ia amaitu be egin dabe eta gaur Bermeo'k Ikastetxe ederra dauka Sollube'rako aldatza asten dan tokian, bide-ertzean.

* * *

IKASTETXE BARRIA

Orain oitura dan lez, erritik pizka bat alboratuta dago, baiña ez urrin. Ikasleak autobusetan joaten dira.

Uger-toki ederra diardue egiten eta jolas-leku egokiak be ba-dagoz, pelota-lekua, ostikoketa-zelaia, Baloiotzara jokoa, ta abar.

Barruan toki aundi argi ta ederrak eta egualdi txarretarako jolas-tokia be bai.

Bazkaria bertan egiten dabe ikasleak eta orretarako jantoki zabal eta aundia dauke, ikasleentzat bakoitxak bere janariak artzeko mai egokia be bai. Jana kanpotik gertatuta etorten jake.

* * *

OSPAKIZUNA

Ikatxe barri ta eder onetan ospatu da Lamene'tarren Bermeo'ko jaiak: Diamantezko eztegua edo 75'garren urtea. Lau eguneko jaiak, Jose deunaren eguna barruan dala.

Jai onein barruan, ekiñaldi asko aztertu geinkez, baiña bat bakarra ta garrantzitsua aitatuko dogu: Aita Paskual Barturen'ek bere Abes-Batzagaz emon eban abestaldia. Ez genduan joaterik izan eta geiago ezin geinke zeaztu jaialdi au, baiña an izan ziranak asko goratzen dabe.

Jose Deunaren egunean alkar mezea ospatu zan, otoitz eta esker onaren giro egokian.

Eta, amaitzeko bazkaria: An alkartu giñan pozezko orduan Irakasle izanak, ikasle izanak, gaurko ikasle ta gurasoak, laguntzailleak, bereziki deituak...

* * *

ZEREGIÑA

Ospakizun au dala-ta, Lamene'tarrak azterpen sakonak egingo dabez, zalantza barik, batez be Bermeo'ko erriari ta Euskalerrriari begira. Baiña, ziur nago, lekaide diran aldetik, gaurko gaztediaren erlejiño ta fede-giroak ez dituala gitxi arduratuko.

Erti-lan guztietan gaitxena, giza-ezikitea ei da, eta ori beti orrellan izan ba'da, zer esan gaurko giro oneri be gira?

Gaurko ta biarko gazteengan jakintza orokorra ta euskal jakintza ondo alkartuta ezarri, galtzen doan euskereari indar barria emon, ikastetxe barruan eziketarako bear-bearrekoa dan giro arduratua sortu, guzti orren barruan Barri Onaren legamiña, gatza ta argia sartu... orra or ardura aundiko diran elburuak.

Oraintsu ta gogotsu etorri da ikastetxe onetara irakasle izateko Luis Barturen anaia, benetako euskalduna, biotz zabal eta oneko gizona. Ba-daukagu Ikastetxe onetan giro egokia sortuko daualako ustea beronegan. Gaiñera irakaslekide egoki ta jakitunak be ba-ditu. Itxaropena izan geinkela uste dot.

Lortuko al dogu Bermeo geure erri maite onetan jakintza, errigintza ta giza-lan egokia aurrera eroatea. Eta guzti ori, ikastetxe onetan, Eleizearen jokabide dan lez, Barri Onak eskatzen dauan bidetik.

GAMIZ'ek

75 ANIVERSARIO

HERMANOS MENESIANOS EN BERMEO

75. URTEURRENA

ANAI MENETARRAK BERMEON

D

S

1
9
0
6
*
1
9
8
1

FESTEJOS

KIROLAK ETA ABAR



LAGUNTZEN

Gaurko gure erriaren egoera bai dala benetan larria: beartsuak geituz, lanbageak millaka ta millaka, etorkikizuna baltza, etab, etab.

Diru askodunak, euren aberastasunak emen edo erbestean ondo gorderik, au ta bestea egin bear diralata, esan ta esan bakarrik, eurenetik gitxi edo ezer emon baga, nai ditue ebatzi arazo guztiak.

* * *

Langille-zale eurak bakarrik dirala esaten daben zuzendariak, ao batez didarka dabizan sozial igarle asko ta asko, euren lan sari ederrak dituelarik besteen lepotik atondu nai ditue, ezbear, lan-bagetasun, txiroen eskubideak.

Euren idazki ta barriketa azkenbageagaz, amaika ta amaika ximple lilluratuten dituez; baiña euren lan sariak beeratu? Euren dirutik ezer emon? Bai zera! Olakorik ez. Egon arduraga!!

Geienak bai ta be Elizaren gain erru guztiak boteaz euren buruak zurituten.

Urteotan baita ikusi doguz langilleen alde didarka ibilli diran katoliku ta eliz gizonak be, asperturik edo egiz jokaturen ez ebenak, dana bertan bera itxirik, elizan baiña geiago irabazten dan lanean sarturik, ederto bizi diranak.

Marmar ikaragarriak entzuten dira elizara sarritan datozenen aurka, baiña elizara datozan kristau zeeiak geie emoten dabela esan bearrean nago.

* * *

Eurak, geienak erdi txiroak izanik, gose diranen alde, lan bakoan alde ta txiroen alde elizan eskabideen bat egiten danean, biotz onez zerbait emoten dabe.

Ortik zear deadarka dabizenak, ezertxo bere ez.

Eurai adarra jo ta irri, baiña eurak onenak eta zuzenenak!

* * *

Txiroen eta beartsuen arazoak zuzentzeko, lenengo ta bein euren biotza artu bearrean gagoz, gure biotzak eurenagaz bat egin bearrean.

Ori da oraingo arazo gogorak arteztuteko lenengo mailla.

Etzaldi ederrak, idatzi dotoreak eta alkarte sozialak utsa dira, biotzak anaitasunean alkartuten ez ba'doguz, besteen miñak atsekabe ta naigabeak geure biurtuten ez ba'doguz.

Gure egunetako larritasun orreik ez dauke urteerarik, dana alperrik, gure biotzak bigunduten ez ba'dira.

Kristau anaitasuna gurean nagusi izan arte ez gara elduko garaipenera.

Agintariak langilleen alde lege onak emon bearrean dagoz baiña orregaz ez dira ebatziko langilleen arazoak, geure barrua asterturik maitetasun-mailla bear bearrekoa indartuten ez ba'dogu.

Legeai iruzur egiten trebea da gizona, biotz bera ta biguna ez ba'da barruz.

Kristoren jarraille egizkoak benetan maitatu ditue txiroak.

Santuak euren bizitzan ta orain Kalkutako Ama Teresa ta antzekoak egiz txiroen alde lan egin dabe.

* * *

Gaur geienok, bai siñesdunok eta bai siñesbageak, txiroen alde lan egiteko lenengo mailla ez dogu lortu: Maitasuna gure biotzetan!

BLA, BLA, BLA, esan ta esan, deadar ta deadar gabiz, baiña egin? Ezer ez edo gutxi.

Danoi eldu iaku eguna geuretik al doguna emoteko.

Iñoiz laguntzekotan, gaur da eguna, besteai begira egon baga, geuretik laguntzeko erri au baketu daiten guztien gizontasuna ta izatea indartuteko.

Egiz deadar egin, baiña obeto lan egin ta emon lurrean danentzako beste bizi bide diralako.

Ez geurekoiz, dana arrapatu ta guretzako batu, baiña bai anaitasunean danen artean bear dana banandu.

GIZA - ESKUBIDEAK

(Ipuiña)

Sei ume itxas-ontzian jolazan eta antxe egin ziran benetako adiskide.

Bat Europa'koa zan, bestea Asia'koa, bestea Aprika'koa, bestea Ipar-Amerika'koa, bestea Ego-Amerika'koa, eta Ozeania'koa seigarrena.

Ekaitz aundi bat sortu zan itxasoan eta itxas-ontzia ondatu-bearrean, gorantza jaso eban. Egaz ebillan. Eta alako baten sei umeak mendi-gaillur baten gainean geratu ziran. Etxekoak eta ikastolako lagunak negar egin eutsen agertu ez ziralako, baiña eurak zoriontsu bizi ziran.

* * *

An bean gizonak ez ebiltzan ondo: Alkarren gorrotoz, alkar joka, alkarren bekaitzez, alkar ilten, alkarrari oiñazeak ezarten, alkarrari izen ona kantzen, alkarrari isekaz...

Baiña umeak zoriontsu bizi ziran eta zerbait egiteko gogoaz. Bakoitxak lan bat artu eban: Europarrak mendietako bustiñaz trudiak egiten zituan; Asia'koak, isilla zan-eta, olertki liburuak argitaratzen zituan; Aprika'koak margolaritza-lana artu eban; Ipar-Amerika'tarrak eres-gaillu batzuk joten ikasi eban; Ego-Amerika'koak abereakaz berbetan igaroten eban denporea; Ozeania'koa asmalaria zan eta beti gauza barriak asmatzen egin eban bere lana.

* *

Ozeania'ko onek bein baten urrutikuskin bat asmau eban eta Madrid'en tximist-tramankulu itzal bategaz gizon bat gora jaurtiten ikusi eban.

Sei umeen artean eurentariko bat lurrera bialtzea ebaitzi eben eta Ego-Ameriketakoa bialdu, abereakaz berba egiten jakin ezkerro, gizonakaz egitea gauzea errezagoa izango jakola-ta.

Ganbelu baten gainean jatsi zan menditik bera eta bean egun batzuk igaro ondoren, negarrez mandira igon eban. Ganbeluak berak baiño be negar-malko aundiagoak isuriten ebazan.

* * *


Laster urreratu jakozan lagunak eta berak esan eutsen:

—Bildurgarria da aundien artean bizitea.

—Zer egiten dabe ba?

—Alkar ill!

—Gudaketan ibilliko dira! Ni Europarra naz eta badakit an Europa-barruan Euzkadi esaten dautsoen erri txiki bat dagoala. Euskerea da euren izkuntza. Franco'gaz gudaldia izan eben eta galdu. Arrezkerro aurrean darabillez eta espetxeetara eroan be bai. Eta orregaitik sortu



zan Euzkadi'n ETA esaten dautsoen gudari-taldea. Onek gogorkeriz jokutzen dau. Eta antxe sortu zan giza-eskubiden sortzaillea, Euzkadi'n.

—Egia da ori?

—Bai. Egi-egia da. Aita Bitoria zan, Gasteiz'en jaioa...

—Nagusiai gogorkeriz ez ibilteko, iñor ez ilteko, iñori goserik ez emoteko ta iñor ez zapaltzeko esan bear dautsegu,-esan eban ume Asia'tarrak.

—Baiña zelan lortu gudak isiltzea, eskubideak zaintzea, gosedunak janaritzea, esan eban Ipar-Amerika'tarrak,-Ori ia eziña da.

—Orduan-esan eban ume olerkariak-eskari onei eskubideen izena emongo dautsegu. Ni asiko naz olerkiak idazten gauza orreik agertzeko.

—Nik ezagutzen dodaz Euzkadi'ko etarrak-esan eban itxaropentsu ume Europa'tarrak— eta izkilluak iztea buruan sartuko dautsedala uste dot. Eta ori eginda laster euren aberrietan eskubideak ezarriko dirala...

Eta orrelan, olerkiz, margoaz, eresiz, munduko mendi-gaillur baten asi ziran umeak giza-eskubideak sortzen.

Gero jaun aundiki batzuk Paris'en mai-inguru baten jesarri ziran 1948'ko abenduaren 10'ean eta umeak asmauriko eskubideak idatzi ebezan, beste eskubide batzuk geituz eta «Giza-eskubideen Aitorpen orokorra» ipiñi eutsen izena idazki areri.

LETONA'k

BABESA

Euskal-erriaren oñarri ta iturria izan dan baserria eriotzaruntz arin arinka doala, agiri da: etxeak utsiturik, zelai ta basoak sasiz beterik, ingurua isiltasun eta eremu biurtuik, gerrogo ta itxura negargarriagoaz agerzen dira.

¿Nork ez egin negar, benetako euskalduna ba'da ikuskizun larri ori ikustean?

* * *

Euskal-erriko kondaira-edestiari begiratu ezker, baserria izan dala eusko gizadiaren muiña ta biotza, argi baiño argiago ikusten da.

Baserrietako gizakiak, sendo, garbi, langille ta benetako gizon, baserrian sortu ta osotu dira.

Ango enda, janari ta aize bigunak euskaldunen soiña sendotu dabe; ango oitura garbi argiak euren gogoa osotu dabe; bertako sendi kristauak lengille zintzo ta maitale bero ta alai egin ditue.

Bertatik urten dau gizadi berezi batek, mundu zabalera.

Mundu guztian zear ezagun-ezaguna ta guztiz goraldia izan da gure

jentea alde guztietaraño, baserrian ikasi ebana, beti beragaz eroialako.

* * *

Basarri-iturri garbia galduz eta gure entzute ona bere galduz doa.

Euskaldun asko baserria bazterturik eta baserriari uko egiñik, bes-teen oitura ta bizitegaz lilluraturik, euren benetako antza galduz doaz.

Danok dakigu erbestetarrak, eta txarrago dana, euskaldun askok, urietakoak batez bere, baserritarri irri ta barre egin dautsela, baserritar izatea gauza txarra ba'litz lez.

Ainbeste irri ta barregaz, baserritarrak eurak be, askotan baserritar izaten lotsatu egin dira, Baserritar orreik jakin bear dabe, emengo markes eta aundiki guztiak be guraso baserritarrak izan ebezala.

* * *

Guztion erruz, baserritarrak geienbat, abedetu edo alfabetatu bagakoak izan dira.

Oraintsuko urteetan be, andik ona etorri diranentzako izan doguz gure diru ta laguntza geiena, geure baserritarra alde batera itxirik besteentzako

eskolak, besteentzako diruak; eta gure baserritarrak kultura barrik ezin urten mundura.

Ain onuratsu dan baserriko jakintza galdu barik, or-emendik izan diran aurrerakuntzak banandu bear geunkez, alegiñez, baserritarren artean.

Lagundu ta lagundu euren lurretan biziteko bear dabena ondo irabazi dagien, bai ta euren jatorrizko jakintza oraingo jakintza eder azkogaz ornidu ta osotu dagien.

Ez eurai ain eder dan baserri jakintza kendu, ez.

Jakintza ori kendu ezker ez dira euskaldunak izango.

Jakintza ori kendu ezker, bere lurretik ataraten dan landareari jazoten jakona iasoko jako: ZIMELDU, LEGORTU TA IL.

* * *

Lengo txarto egiñak arteztu dagiguzan, baserria maitekiro babestuaz, aurrerantzean be, baserritik datorren izate berezi ta ederra, urietara mara-mara, jatsi daiten ete gure erria euskal usain gozoz beterik illezkor biurtu daiten.

*Nire baserri aundi zabala
zelai ta baso tartean
euskal senaren eliz berezi
euskal errin biotzean.*

*Bertan sortu da euskaldun gizon
guri ta lerdan, ederra
mundu zabalen gizakitatik
gorengo mallan da bera.*

*Izadin lore eder-ederren
gure errian urtena
doaz beterik zintzo ta alai
gure euskaldun gizona.*

*Sustrai orretan ba-da bizirik
onoimen askon iturri
zaindu bear da mizkez etxe au
jarrai dagian biziki.*

*Bera galduaz gure izate
dala betiko galdua
gure antz, eder berabagarik
izango da ba ondatua.*

*Ez, ez lotsatu izatearren
gure baserrian jaiola
uritan baño baserrietan
izate sakonagoa.*

*Urte askotan irri ta barre
baserritarri egiña
lotsa ortatik urtetan arin
egin beti alegiña.*

*Esan leiteke gure artean
sortzen asi da gurari
euskal baserri goratuteko
zorion eta poz aundi.*

*Ez, ez aaztu euskal erria
nundik datorzun edesti
ez, ez ukatu zure baserri
bera da zuretzat kabi.*

GALLASTEGI'k

BERMEO'KO ABES-BATZA

Gure errietan abes-batzak bear dira.

Euskalerrria beti izan dogu abesten zalea eta zaletasun ori galtzen ba'dogu, geuretasunaren zati on bat galduko dogu. Gaiñera gaurkoaren lako egoaldi larrietan, eresa barua nasaitzeko bide ona izaten da.

Erria poztuteko ta erri-bizia bizkortuteko ondo dator-kuz, ba errietako abes-Batzak eta olako taldeak.

* * *

Baiña ez da gauza erreza izaten olako talde bat aurre-ra ateratea. Bilbo'n bertan be, uri aundia izan arren, gora-bera ta estualdi gogorak izan ditu bere egunetan eres-taldeak.

Eta ori, erriagandik irabazi gitxi ateraten dalako. Diru asko eralgiten da janedanean eta kirol naiz jolasetan, tabakoa erreten be ez gitxi. Olako naikeriak erriak maiteago izan ditu erti-lanai naiz eresari indarra emotea baiño.

Dirurik ez jako emoten, garrantzirik emoten ez jakolako, eta garrantzirik ez jako emoten, eziketa-maillan goregi igon barik gagozelako.

* * *

Bermeo'n 25 urte daroaz Abes-Batzak. Aurten ospa-zen dau ba, zidarrezko eztegua.

Bermeo ez da baserria, ez da erri txiki bat. Alan eta guztiz be 25 urte oneitan irauteko gogotsu jokatu bear izan dabe Abes-Batzaren lagunak. Erri abeslaria ta eres-zalea da Bermeo eta orregaitik eutsi dautso bere talde one-ri.

Olako urte moltzo bat igarotakoan, ospakizuna egitea gauza egokia da.

Jorraillaren 4'an asi eta orrillaren 10'era izango dira eres-aldiak Bermeo'n: Batzutan berak Abes-Batzak abes-tuko dau, eta beste batzutan bere omenez inguruko eres-taldeak.

Jorraillaren lauan izan zan omenaldizko lenengo eki-ñaldia, Eupeme deunaren Zin-Eleizan.

Gabeko zortzirak ziran. Eleizkizunak amaituta, baiña eleizan 300 bat entzule gertu.

Eres-aldiak zati bi izan zituan: Larrinaga Txistulari-Taldearena lenengoa, Iñaki Larrinaga Zuzendari zala eta

Gernika'ko Andra Mari Koralarrena bigarrena, J. A. Ara-na Martija'ren zuzendaritzapean.

* * *

Txistulariak zazpi eres-lan jo ebezan. Lenengoa parro-ki aretan organu-jotzaille oraintsura arte izan dan Egia'ren «Gure Tala». Bigarrena Isidro Ansorena'ren «Txistula-riak ertilari». Irugarrena F. Agirre'k zuzendutako «Kon-trapas». Laugarrena Urteaga ta Ibarzabal'en «Rapsodia». Bostgarrena «Magdalena» deritxon zortziko errikoa, E. Larrea'k eres-lagundua. Seigarrena 1896'ko «Fandango» errikoa eta azkenez Jesus Guridi'ren «Inguruko Dantza».

Entzuleak txalo gogotsuak jo eutseezan txituslariai eta eurak egin eben erti-lan ederrari.

* * *

Bigarren ekiñaldia, Gernika'ko «Andra Mari» Korala-rena.

Asteko, Gabon-Abesti bi: Usandizaga'ren «Mari Do-mingi» eta Darlin'en «O Egu Berria».

Urrengo Baltzen gogo-abesti bi: «King Jesus» eta «Ro-king Jerusalem», Fernando Leniz abesle bakar zala.

Gero, Laterri-maillan aurtengo lenengo eres-saria ira-bazi dauan Fernando Remacha'ren omenez, bere «Can-tantibus Organis».

Hilarion Eslaba naparraren «O Salutaris Hostia» izan zan seigarrena, abes-batza zati bitan dala.

Eta azkenez Händel'en Mesias'etik artutako «Amen» zoragarria.

* * *

Ordu ta erdi inguru pozgarriak igaro genduzan entzule guztiok: Txistulariak baiño txalo gitxiago ez eben entzun abeslariai eta ekiñaldi biak entzuleen aldetik goratuak izan ziran.

Zorionak abeslariari ain entzun-aldi atsegiña eskiñi dauskuelako, eta zorionak baita, Bermeo'ko Abes-Batzari bere ospakizun aundi oneitan.

Urrengo ekiñaldien barriak be, erea ba-daukagu, emongo doguz ZER aldizkari onetan, gure eres-zaletasu-nak aurrera ta aurrera egin dagian.

GAMIZ'ek

EZKONTZA

Ezkontza kristau bat izan da orain arte euskal sendiaren sakontasuna ta onura askoren oñarria.

Orain kristau ezkontza orren ontasuna askok eta askok zalantzan ipiñi dabe, ta gure artean be, elizaz ez ezkontzea oitura biurtzen asi da.

Egia da siñisbageak elizaz ezkontzea guzurtia dala, elizari irri egitea dala. Baiña gure guraso zarren sñismena ta siñismen orrek ezkontzeari emoten eutsen indarra ta iraunkortasuna ikustean, ezkontza orren alde lan aundi etenbaga bat egitera bear tuak gagoz.

Ezkontza-auste legea datorrela-ta, asko pozik aurkitzen dira baiña elizaz ezkontzen danak ezkontza austerik ez daukala jakin bear dabe. Baita au be jakin bearrean dagoz: Ezkondu-aurretik ezkontza-auste-legea dagola-ta poztuten diranak, maitasun gutxi daukela ezkontzeko.

Euren biotza besteari gutxi emoten dautse.

Ezkontzaren iraunkortasuna da bere zentasunik

aundiena ta orretarako maitasun indartsua ta guztizkoa bear da.

Iraunkortasun bako ezkontza gauza larri ta tamalgarrria da batez bere seme alabentzako.

Begira ezkontza ausi daben seme alaben begietara ta motelak argituko dira, poztasun bakoak.

Siñiste bakoak ez dira elizaz ezkondu bear, ori ez, baiña euskal errian siñisten dagunok ezingo doguz siñesbageen ta siñiste gutxi dabeen biotzak siñismeneruntz biurtu ia gure antxiñako guztien ezkontza eurak be artu dagien?

Au izango litzateke euskal erriaren salbamen ta garaipena, ekandu on guztien iturri ta oñarria.

Gure gazte maitaleak Jainko maitasunagaz alkarturik ezkontza indartu ta sakontzen dabenak izan bear doguz.

Orain elizea be len baiño geitxoago aleginduten da gazteak geiago ta geiago gertuten benetako ezkontza eder baterako.

EZKON-BARRIAI ONUAK

*Nora zoaz, txori polit,
arinka kantari?
Lagun billa, udabarri
eldu da ta argi,
neure barrun somatzen dot
abi bigun naia,
gero bertan txoritxuak
artuko bizia.*

* * *

*Zuek biok ezkontzean,
txorien antzera,
abeslari ta poz pozik
zatoze aldarara,
zuen biotz maitaleak
betiko alkartzera,
sendi barri goragarri
gaurtik eratzerá.*

* * *

*Dakizue ezkontzean
zuen sorbaldara
sorta gogor ta biguna
eltzen da batera,
euskal erri geitutea
zuen bustarria
euskal zale ta Jainko zale
egiñaz sendia.*

* * *

*Maitasunak dana al dau
dalako su-garra,
biotzetan sartu gaurtik
maitasun-indarra,
bateratu zuen biotz
txiki ta argalak,
alkartuaz zuen indar
betiko iraunkorra.*

* * *

*Beti beti begiratu
biok aurrerantza,
baiezkorrak izan beti,
ez begira atzera
batak beste bultzatuaz
ez dago bildurrik,
urteakaz lortuteko
garaipen ederrik.*

KAULDI'k

ZIÑA TA MEZUA

(Baiona'n eta Eibar'en)

Agiri bat eldu gure eskuetara eta ZER onen irakurleentzat naiz euskerearen kondairarako jakingarria dalakoan, agiriaren mamiña, ingurua ta izenpetzailleak emen agertzea ondo izango dala uste dogu.

Amar urte ta geitxuago igaro dira ordutik ona eta jakozun arek auskerearen aurrerapanean izan dauan eragin kaltegarria, gure Bizkaiereari egin dautson miña, agiri-agirian dagoz.

* * *

* * *

Lekuona'tar Manuel Euskaltzaindiaren buru zan aldi aretan, erakunde onen edazkerea ta jaskerea onartzen ez ebenak egindako ziña da.

«Batasunaren Kutxa» Idazpurua daroan liburu baten batu ebezan, orduan asmatzen ziarduen «Euskera Batua» ren arauak.

Ordutik seigarren illebetera, norbaitek bere izen onaren aurkako ekiñaldia egin ondoren, kendu eben bere lekutik Lekuona jauna. «Demokrazi-bidezko» batzarrean izan ei zan, baiña an izan ziran euskaltzain batzuk ez dabez jakingarriak ain egoki lez agertzen. Orduan aldatu zan Euskaltzaindiaren jokabidea.

Jokabide orren aurkako Euskaltzainak, geienak bear ba'da, bildurragaitik edo nasterik ez sortzearren isildu egin ziran.

Zin ori izenpetzen daben batzuk gaur be euskaltzain osoak dira edo erakunde orren barruan ardura bereziak daukez.

Euskaltzaindiaren aurka ain gogor jokatu ebenak, ez dabe nai gaur iñor «euren Euskaltzaindia» ren aurka jarterik.

Mezua:

- *Batasunaren kutxa agertzen danetik 1971'garren urtearen azkenera, bertan agertzen diran erauak betetuz idatziko dabe.*
- *Arau orreikaz batera ez datorren edonork, bere erara idazteko eskubidea izango dau, baiña KUTXAREN GILTZARIARI idatziz jakin-azota.*
- *Bitarte orretan, egindako zuzenketak eta liburua bera Mitxelena'ri emongo jakoz eta berak erabagiten dauana bein eta betiko beteko dabe.*
- *Euskalerrria'ganako eginbide au ez dala bete ikus-teak beartzen ditu ori egitera.*
- *Euren arteko batasun ori Euskalerrria'ri ta Euskaltzaindia'ri eskintzen dautse, ontzat artzeko eskatuz.*
- *Erabagi oneik beteko dabezela zin egiten dabe, euren izen-onagaitik.*

Baiona'n, 1970'garreneko Pazko-igandean.

Eibar'en, 1970'garreneko orrillaren lenengoan.

ZIN EGIN EBENAK:

Gabriel Aresti
Xabier Kintana
Imanol Berriatua
J. L. Alvarez Enparantza
Juan Antonio Letamendia
Daniel Landart
Patxi Altuna
Ramon Kanblong
J. M. Torrealдай
Ibon Sarasola
José Luis Lizundia
Salbador Garmendia
Juan San Martin
M. Karmen Garmendia
Xabier Gereño
Jose Mari Olanga

Ramon Saizarbitoria
Anjel Zelaieta
Xabier Lete
José Antonio Artza
Amaia Lasa
Patri Urkizu
Anjel Lertxundi
Jon Zorrozuza
Abel Muniategi
Mikel Ugalde
Kepa Enbeitia
Xabier Mendiguren
Lurdes Gandiaga
Markox Amundarain
J. M. Beristain
Eduardo Larreategi

Iñaki Beobide
M. Karmen Aranburu
Andoni Sagarna
Jon Tolosa
Jose Mari Aranburu
Andoni Sarriegi
Jaxinto F. Setien
Jose M. Iturrioz
Begoña Arregi
Jabier Zubiaurre
Imanol Laspiur
Enrike Heras
Josune Txintxurreta
Xabier Zubizarreta
Jesus M. Amundarain
Bernabe Berezibar

Iñaki Beristain
Jon Arginarena
Karme Errotaetxe
Jose Luis Egireun
Juan A. Aroma
Patxi Zabaleta
Juan Zulaika
Begoña Etxebarria
Julian Iriondo
Serafin Basauri
Felix Etxebarria
Anton Santamaria
Iñaki Zumalabe
Norbert Tauer
Luis Mitxelena

AMES BAT

Gorbea-mendi goi-goian dago,
Kurutz Deuna dau zaindari.
Arren bertatik zaindu gazizuz,
Geure Erri ta Euzkadi.

* * *

Arratia'ko lur-alde onetan
Aurkitzen da erritxu bat,
Aitz zuriakin inguratutik,
Opaltzen oni loratxu bat.

* * *

Opaltze ori egiten dautse,
Anaiak diran mendiak.
Jaiokeratik imiñi dautse
Jatorrizko izen argi bat.

* * *

Mendi orreitan jaioten diran
Iturri eder garbiak,
Erri onetan alkartzen dira
Ibai batera irurak.

* * *

Gorbea, Indusi, Aramotzpetik
Datozan ur lerdan garbiak
Erri onetan alkartzen dira
Ubiritxaga zelaian.

* * *

Orra non daukun beren izena,
Iorre deitzen dautsaguna.
Baiña, neure ustez, au ikusirik,
Iru Ura dau izena.

* * *


Poztu gaitian datorrelako
Garbitasunaz beterik.
Ura baiño garbiagorik
Sortu ete da gauzarik?

AIZPURU'tar Lontzi'k

10 IZKI'koak
*Inusitado
persona insustancial*

9. IZKI'koak
*ilimitado
reloj*

11.^a ERANTZUNA



Gorri

8 IZKI'koak
*navarro
duda
componer*

7 IZKI'koak
*aguerrido
padrastro
comparecencia
bautizar
salinas
fotografía*

6 IZKI'koak
*golfo de mar
sin*

5 IZKI'koak
*limpio
mancha
gordo
vasco
mejor*


4 IZKI'koak
*anoche
día, fecha*

*acostumbrarse
malo
forma, palabra
hermano de varón*

*letra
perdiz
hora, trance
próximo*

3 IZKI'koak
*palabra
fresco, verde
pelo largo
que era
motivo, razón
tres
vos, usted
puerta*

2 IZKI'koak
*es
los, las, aquel
sufijo que denota agente
interj. de apuro
el que, la que
artículo no afirmativo
nosotros
menudo
lo tiene
terminación verbal*



Gorri

EUSKERAZALEAK

IPUIN-SARIKETEAK

«Euskerazaleak» Taldeak eratu dauan sariketarako ipuiñak etorten asi dira aspaldion. Urrengo ZER aldizkarian agertu al izango dogu epai-maikoen erabagia.

* * *

Gure bizkaierak idazleak bear ditu, idazle asko, ugariak eta onak.

Idazteko bide bat ipuiñak dira. Idazle barriak arlorik errezena ipuiñena dala uste izaten dabe, baiña ori ez da orrelan. Ipuñak idaztea ez da gauza erreza, gaitxa baiño. Asmaki-zuna eta arauak erabilteko trebetasuna bear dira.

* * *

Ipuin batzuk beti Euskalerrian erabiliak dira. Orreitan idazkerea zerbait aldatzen da. Iñoz norki barriak sartu be bai, baiña benetako gaurkotasuna emotea gauza gaitxa da.

* * *

Ipuñen arloan abereak norkitzat artu eta gizonentzat irakatsia ateratea izan da beste bide bat, antxiñako aldietan India'n asi eta gaurko elertira-arte zabal etorri dan bidea.

Bide onetan Maisua zan gure Mikel Zarate, baiña nik irakurri dodan gauzarik ederrena, egokiena ta trebetasunik aundienekoa, «Euskerazaleak» Taldearen Zuzendari dan Iñaki Zubiri'ren GALDU liburua da. Txakur baten bizitzatik ateraten dira irakatsiak.

* * *

Ipuin-arloan aspaldiko urteetan munduko elertian aurrerapen edo aldakuntza aundiak egin dira. Arlo onetan idazteko tankera barriak dagoz. Ori be kontuan artu bearko dabe epai-lariak.

* * *

Baiña ipuin-sariketa au ez da idazleentzat beste barik, batez be irakurleentzat da. Orregaitik iru ipuin sarituak aldizkari onetan agertuko doguz.

Ipuña idazteko gaitxa dala esan dogu, baiña irakurteko errezena da, aria ondo eroan ezkerro errez bururatzen dalako eta erreztasun orrek barruko poza sortzen daualako.

Irakurleak ugaritzea be gure elburuen artean daukagu.

Betoz ba ipuiñak eta beioaz sariak!

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz


Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Confie en nosotros

Zenue nrotea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**